


DATUAK

Azaroaren 23an egindako **e2i**

(euskara elkarteak ibilian)
jardunaldietako zenbait
datu eta balorazio:

- a) **Izen-ematea:** 97 lagun.
- b) **Jardunaldien berri:** Euskara Elkarte edo euskalgintzaren bidez izan du jardunaldien berri etorritakoen %70ak. Prentsa edo interneten bidez %18k, kartelen bidez %8k eta lagunen bidez %3k, bestelako bideetatik %1k.
- c) **Hizlariak:** 17 lagun ibili ziren hizlari eta dinamizatzaile lanean.
- d) **Denbora:** 9:30etatik 18:45etara bitartean, tartean bi orduko atsedenaldia. Orotara, zazpi ordu eta laurden.
- e) **Partaideak:**
- Euskara Elkarteetatik: 55 lagun (21 elkartetatik), %56,8.
 - Euskalgintzatik: 17 lagun, %17,5.
 - Euskara zerbitzutatik: 13 lagun, %13,4.
 - Topagunetik: 9 lagun, %9,2.
 - Bestelakoak: 3 lagun, %3,1.
- f) **Balorazioa:** batez bestekoa 4,1 (gehieneko puntuazioa 5 izanik).

JARDUNALDIEN ONDOREN...



Azaroaren 23an Donostiako Miramon Parke Teknologikoan 100 lagun inguru bildu ginen e2i jardunaldien bueltan. Gogoetarako parada ezin hobea eskaini ziguten bertan entzundakoek eta gogoetari jarraipena ematea pentsatu dugu, horretarako Topaberri berezia prestatuz. Jardunaldietan parte hartu zuten hainbat laguni eskatu diegu iritzia eta beraiek egindako hausnarketekin osatu dugu esku artean duzun zenbaki hau (iritzi horiei, Topagunearen 10. urteurrenaren harira egindako beste bi ekarpen ere gehitu dizkiegu).

Helburu bakarra du honek: martxoan ekin genion bideari jarraipena ematea (azaroko jardunaldiak bide horretan mugarri garrantzitsua izan dira, baina inola ere ez dira hasiera ezta bukaera ere). Hiru gogoeta ildo interesgarri zabalik gelditu ziren, hurrengo urteetarako oso kontuan hartzekoak izango direnak eta euskara elkarten artean eztabaida piztea merezi dutenak.

Hausnarketa hauei heltzeko une egokia dela deritzogu. Izan ere, 2007 urtean hamar urte bete dira Topagunea sortu zenetik, baina Euskara Elkarten mugimendua lehenagokoa da (elkarte aitzindariak, Arrasateko AED Elkarteak, 25 urte egingo ditu aurten) eta denboraren poderioz, aldaketa nabariak gertatu dira, nola gizartean hala euskara elkarteetan. Hasierako diskurtsoak garatu eta garai berrietara egokituz joan dira, ideiak eta praktikak eraldatu, berriro eta egokitu egin dira, eta hainbat galderaren erantzunak agertzeaz bat, zalantza berriak ere sortu dira eguneroko jardunean.

Euskara Elkarten helburua euskararen erabileran eragitea dela esaten dugu behin eta berriro, baina ... zer egin hori lortzeko? Nola motibatu euskaldunak euskaraz aritzeko? Zer egiten dute antzeko egoeran dauden beste hizkuntzetan? Non du euskarak balio erantsia? Nola komunikatu hori guztia modu eraginkorrean?

Jardunaldietan proposamen berritzaileak eta iritzi interesgarriak entzun ditugu, galdera horiei erantzuteko lagungarri izango zaizkigunak. Guzti horien berri e2i blogean jaso ahal izango duzue eta bertan zabalik dagoen iritzien elkartrukeko aukera ere aintzat hartzekoa da.

Esku artean duzun Topaberrian jasotako iritziek balio dezatela aurrerantzean ere ideien elkartrukean jarraitzeko.

Bitartean, informazio gehiago aurkituko duzue blogean:

<http://www.e2ibilian.org>

JARDUNALDIEN BALORAZIOA

Zintzo Mintzotik bi lagun izan ginen jardunaldietan eta gurekin batera Zumarragako Euskara teknikaria ere bertan izan zen. Jardunaldien balorazio ona egiten dugu benetan, horrelako gogoeta-jardunaldiak beharrezkoak ditugu euskara elkarteetan; eguneroko gurpil-zorotik atera, geldi eta gure norabideaz hausnarketa egiteko.

Gehien astindu eta ase-bete gintuen hitzaldia Ferran Suay-rena izan zen dudarik gabe: bizitzaren egunerokotasunean hizkuntza-hautua egiterakoan mekanismo psikologikoen nola funtzionatzen zuten aditzea interesgarria izan zen oso. Aipatutako gauza asko euskaldun bezala aurrez bizi edo pairatutakoak ginen noski, baina esperientzia horiek teorizatuta ikustea aberasgarria izan zen.



Horrez gain, TELP teknika lantzeko tailerrak ere badaudela jakin genuen eta euskara elkarte garen unetik oso interesgarria iruditzen zaigu horrela saio praktikoa elkarteetako bazkideen artean zabalduko bagenu. Elkarte askok badugu kezka bat bazkideen parte hartzeare-



kin lotuta; parte hartzea hori nola aktibatu eta dinamizatu dugu gogoe-ta-gai azkenaldian eta jabetu behar dugu eraketan arituko diren pertsonak topatzea zaila izango dela, baina bazkide mordo bat ditugun elkarteek (guk ia 400 dauzkagu) sekulako kapitala dugu hor eta bazkide bakoitzak bere eguneroko harreman-sareetan euskara bultzatzeko, eragiteko eta erabiltzeko ahalegin aktiboa egingo balu, gure eragina esponentzialki biderkatuko litzateke. Eguneroko harreman-sareetan eragiteko teknika bat izan daiteke TELP tailerra bazkideen artean lantzea. Tailerra ere hitzaldiarekin batera oso interesgarria izan zen.

Paula Kasares eta Sergio Mongerena ere interesgarria izan zen, eta badugu zer ikasia euskara elkarteek motibazio nahiz sentsibilizazio-kanpainak martxan jartzerakoan mezua landu behar dugunean. Geroz eta gehiago gara horretaz jabetu garenak eta betiko mezu topikokoekin inora ez goazela ikusi dugunok; hor hausnarketa egin behar dugu eta interesgarria litzateke Topaguneak irizpide batzuk landuko balitu, izan ere denok antzeko dis-

kurtso edo mezua erabiliko bagenu askoz eraginkorra-goak izango ginateteke gure jardunean.

Fermin Etxegoienen ponentziak, gustatu edo ez, ez zuen inor axolagabe utzi; betiko eskemetatik atera zen estetika hizkuntza bat hautatzerakoan duen garrantziaz hitz egin zuen. Ohikoa ez da gure artean, baina kontuan hartu beharrekoa iruditzen zaigu jaurti zituen

dardoak gorabehera.

Amaia Antero eta Miriari Bereziartuarena arlo teoriko-bisio arloan aritu ziren eta ez gintuen hainbeste konbentzitu. Egia da horrelako gaiak eta diskurtsoek duten garrantzia, baina gu behintzat erreminta eta esperientzia praktikoa bila etorri ginen, eta ez gintuen asko ase-bete.

Antolaketari dagokionez oso ona, bazkaria mundiala eta giroa aparta. Beste elkarteekin egoteko, konpartitzeko eta gu bakarrik ez gaudela sentiarazteko ederra da honelako jardunaldietara joatea. Urtero egin beharrekoa dela uste dugu eta hurrengotarako ideia bat bota nahi genuke: bazkide eta euskaltzaleen parte hartzea euskara elkarteetan nola aktibatu; jendea nola erakarri gaia lantzea.

Milesker eta horrela segi!

**Zintzo Mintzo
euskara elkarteak**

EUSKARA ELKARTEAK IBILIAN JARDUNALDIAK

Joan den azaroaren 23ko jardunaldietatik Deusturantz bueltan gentalde hainbat burutazio izan genituen autoan. Berbarok egindako ibilbide oparoa entzun eta gero, "eta zergatik ez hau egin, zergatik ez bestea egin..." ibili ginen. Pasatu da hilabete eta gure elkartearen jardunak ekarri gaitu egunerokora. Gure dimentsioetara. Akaso urteen joan etorriak beste neurri batzuetara eramango gaitu, baina hau da daukaguna. Eta pozik noski. Hala ere, euskara elkarteetan dihardunok ez dugu gehiegitan jakiten alboko herrian edo urrunagokoan zertan ari diren eta behar beharrezkoa iruditzen zait beste euskara

elkartearen jardunari entzuteko ariketa praktikoa. Bakoitzak bere herrian zein neurri dituen baloratzeko, nora heldu nahi duen pentsatzeko, zeren truke hazi nahi duen hausnartzeko... Topaguneak halako esperientzia-informazio elkartrukeak bultzatzeko lana bideratzea ezinbestekoa iruditzen zait hortaz. Eskualde Bileretatik kanpoko zer edo zer beharko litzateke horretarako. Beste kontu bat da herrietako dinamika propioak halakotarako tarterik uzten duen.

Goizak aurrera egin eta esperientzia praktikotik etorkizunerako ildoak izan daitezkeenak jorratzera pasatu ziren hizlariak. Nola aurre egin pertsonalki hizkuntz menperatzaileari (TELP), nola eragin motibazioan emozioen bidetik, nola mintzapraktika egitasmoen bidetik, nola estetikaren bidetik motibazioa sortu, nola sentiberatu eta nola komunikatu.

Nabarmena da hauetako bakoitzak egun osorako ematen duela, baina guztiak bata bestearen atzetik entzuteak badu bere abantaila: iragarri famatu hark zioen bezala elkar erka ditzakezu eta gustukoaren duzuna "erosi". Eta bata bestearen segidan entzuteak badu beste abantaila bat: eredu bakoitza nori zuzendu ahal zaion pentsatzeko aukera ematen dizu. Hau da, Sergio Mongek aipatu zituen "xede taldeen" arabera antola daitezkeela diskurtso ezberdinak.



Hots, ezin dugula euskararen aldeko diskurtso bakarra egituratu eremu, eskualde eta publikoak ezberdinak baitira oso. Kontuan izanda diskurtso guzti hauek ez doazela "euskara salbatzera", baizik eta norbanakoa euskarari nola atxiki hausnartzera. Euskalduna dena euskarari lotuta eustera eta euskaratik hurbil edo urrun, baina euskararik gabe ari dena euskarara erakartzera. Eta norbanakoa-aren atxikitzeaz bere inguruan eragin biderkatzailea izan eta beste batzuk euskarara lotzera. Hau ez da nahikoa izango (legerik gabe, babes ofizialik gabe...) baina hau faltan dugu eta etorkizunik ez da.

Gure ingurua den Bilboaldeari begiratuta, iruditzen zait estetikaren diskurtsoa kontutan hartu gabe euskararen erabilerak kale egingo duela behin eta berriz. Hezkuntzak "euskaldunduta" irteten diren belaunaldi

berriek ez dute erreferente estetiko bizirik, eta ondorioz guztiz uko egiten diote euskarari. Komunikabideen faltak edo indar eskasak badu eragirik. Irakasle batzuen euskara arritmiko eta plastifikatuak badu zerikusirik ere. Eta baita hizkuntz eredu finkatu ezak (euskalki faltak). Hala nola kalean dauden euskarari buruzko hainbat aurreiritzik ere. Hiztun berriak ez daki zeri heldu. Horregatik iruditzen zait Euskara Elkarteek badugula garrantzia ataka honetan: aktibatu nahi duten hiztun berriei eredu erdifikatua (nahastua eta ez-puroa, baina baliozkoa eta bizia dena, euskara elkartearen baitan erdikontsentsua lortu duena) duten esparruak eskaintzen

dizkio. Komunikabideak sortuz, ikastaroak eskainiz, gazteek euskalki bizia darabilten herri edo jaietara irteerak antolatuz, berbalagun taldeekin...

Euskara Elkartearen eragin ahalmena mugatua den arren, iruditzen zait gure lana ordezkazina dela arlo honetan, hiztunek hiztunentzako sortutako esparruen balioa berebizikoa delako, esparru hau txikia edo handia izan, gehienbat inongo beste esparru publikorik ez denean existitzen. Hain zuzen ere Deustuko kasuan gertatzen dena. Horregatik du euskara elkarteak ezinbestekoa izatera: bere jarduna ezin duelako beste inork bete.

Galder Unzalu Etxabe
(Berbaizu Euskara Elkarteko kidea).

FERRAN SUAY: PERTSONEN ARTEKO HIZKUNTZA ERABILEREN GAINEKO ESKU- HARTZEA



"Euskerak mendeetan bizirik iraun izan du gramatika, lege eta babes publikorik gabe, baina nekez ahal izango du bizirik iraun hiztunik gabe, edota hiztunak behin eta berriz gaztelerara pasatzen badira."

Antzeko esaldi batekin hasi zen azaroaren 23an Ferran Suayren hitzaldia.

Zergatik ez dugu euskaldunok euskara erabiltzen? Zer pasatzen da ezagutzatik erabilerara bitarteko pauso horretan? **Soziolinguista** askok aztertu dute gaia eta egunero- egunero pauso hori emateko bideak zabaldu eta baliabideak eskaintzen saiatzen gara euskara elkarteetik. Gaia alderdi sozialetik aztertu eta landu izaten dugu

gehienetan. Izan ere hizkuntzak komunikatzeko tresnak diren heinean eta komunikatzea ekintza soziala den heinean, hizkuntza bera soziala dela esan dezakegu. Garrantzitsua eta ezinbestekoa da hizkuntza bere gizarte eta orohar kulturaren baitan erabiltzea eta ondorioz ildo sozialetik indarberritzen saiatzea, baina saiatu al gara inoiz alderdi indibidualetik aztertu eta indarberritzen?

Ferran Suayk bide hori egon badagoela eta erabilgarria izan daitekeela erakutsi zigun, komunikazioaren **alderdi psikologikoa** aztertu eta bide horretatik lan handia egin daitekeela erakutsi zigun.

Zer gertatuko litzateke, norberak BETI (=beste pertsonak, ulertzen ez gaituela eta mesedez erdera erabiltzeko eskatzen digun momentura arte) euskara erabiltzeko konpromisoa hartu eta beteko balu? Zer gertatuko litzateke euskara elkarteek gure bazkideei **norbanako** moduan BETI euskara erabiltzeko konpromisoa hartzeko eskatuko bage-nieke? Eta horien laurden batek, besterik ez bada ere, beteko balu, zer gertatuko litzateke?

Euskara erabiltzeko beharra sortzeko giltzetako bat eskaini zigun Ferranek.

Ainara Labado
(... Eta Kitto! Euskara
Elkarteko kidea)



COACHING

Gero eta gehiago hitz egiten dugu makinekin, eta makinen bitartez eta hala ere giza harremanak eta komunikazioak inoiz baino indar gehiago dute. Kontraesan galanta ematen du baina, zorionez gizakiak hartzen ditu oraindik erabakiak eta gizakien arteko komunikazioak berebiziko garrantzia du. Gauzak ongi azaltzeko, alferrikako hitz gutxi, eta mezuak zuzen emateak, aurrekoa seduzitu, konbentzitu eta gureganatzea da xedea.

Makinekin hitz egitearen ez oso zaleak garenok, eta hitz egiteko aurrepegi bat, begi batzuk eta espresio bat behar dugunok, gure lanean hainbat pertsonekin hitz egiten dugunok, trebatu beharko genuke zeregin hauetan. Pertsonak esaten dutena eta transmititzen dituzten sententziak jaso eta ematen dihardugu. Hitzek adierazi eta hitzik gabeko hizkuntza-itxi jasotzen ditugun bibrazioek pasa-

tzen digute mezua. Eta aldi berean guk ere hala pasatzen dugu. Eta coachingak badirudi balio duela horretarako.

Entzun nahiko genukeena esaten duenari, arreta jartzen diogu, eta niri ere hori gertatu zitzaidan Mirari Bereziartuarekin. Garbi dago bere hitzaldia desberdina izan zela. Mahai atzetik irten eta suelto suelto, hizketan hasi. Kasik paperei begiratu gabe. Lore mordo bat bota zigun. ("Parekoaren indar guneak deskubritu") Eta entusiasmua kontagiatu. Bi hitzetan: **Saltzaile ona**. Eta zenbat aldiz esan dugu euskaldunon akatsik nagusienetakoa, nahiz eta jakin gure produktua dela onena, gure buruan konfiantza izan, e.a. gauzak saltzen ez jakitea dela?

Eredua jardunaldietan bertan garbi ikusi ahal izan genuen. Hitzaldi probokatzailerik baten ondoren, norbai-

tek, "Nire ustez astakeri galantak esaten dituzu" esaldiarekin eman zion hasera bere interbentzioari. Eta egia da batere momentu tentsurik izan bazen, huraxe izan zela.

Bere iritzia, beste hitz batzuekin eman izan balu, beharbada hitz xamurragoekin, baina hobeki zuzenduak, eraginkorrago egin ziezaiokeen aurre hizlariari.

Geroago jakin genuen coachingak ba dituela horretarako zenbait estrategia.

Tailerrean egin genituen adibideen ondoren, ni gehiagoren gogoz gertatu nintzen. Mirarik kaptatu ninduen. Egun bakarrerako nahikoa ez?

Mailu Arruti
(Itakun Euskara Elkarteak kidea)

Coachinga: -rekin egitea?

Aitortu behar dut ezer gutxi nekiela nik coachez eta coachingaz Topaguneak antolatutako jardunaldien aurretik. Gaur ere ez naiz gai horretan aditua, jakina.

Gure lagun Fernando Munioz-gurenek esan ohi zuen hizkuntza normalkuntzan genbiltzanok -REKIN egin behar genuela -RENTZAT baino gehiago eta, nire ezjakintasunean, coaching-aren oinarria ere halako zerbaitek dela ulertu dut.

Aspalditxoan darabilt kezka bat buruan, alegia, gure lanean jarlekuari lotuegi ez ote gabiltzan: burokraziak, planifikazioak, ebalua-

zioak... ez ote digun denbora gehiegi jaten; jendearekin gutxitxo egoten (egon, lasai, berriketan... konpartitzen) ote garen. Garai bateko euskara dinamizatzaileok (hala zuen izena Bergarako Udaleko nire lehenengo lanpostuak), hizkuntza gestore bihurtuak gaudelako susmoa dut.

Eta ez dut esan nahi gestore izan behar ez dugunik. Gestore onak izatea ere komeni zaigu.

Baina hizkuntza normalkuntzak zerbaitek eskatzen badu pertsonetan, giza-taldeetan, aldaketak bideratzea eskatzen du eta horretarako

ona litzaiguke giza-harremanekin lotutako gaitasunetan gehiegi egotea: komunikazioarekin, motibatzailearekin, bidelagunak lortzearekin, partehartzea sustatzearekin... lotutako gaitasunak lantzea.

Eta irudipena dut asko garela hala pentsatzen dugunak. Alde horretatik, beharbada, ez litzateke txarra plangintzak bideratzerakoan behar ditugun gaitasunoi arreta nagusia eskainiko dien prestakuntza-bide luzeagoren bat sortzea. Nork helduko dio lanari? Topaguneak?

Estepan Plazaola

PERTSONAK ETA HIZKUNTZA

Hamar urteko bidea egin dugu Topagunean batuta. Zorionak eman, jaso eta estimatzearekin ez gara konformatzen baina. Mugarriak norabidea arteztu eta bidai-poltsa hornitzeko erabiltzen ditugu, halaxe egin dugu e2ibilian jardunaldian hain zuzen ere.

Pertsonengan ipini dugu begia oraingoan bada. Euskara, hizkuntza, pertsonen artekoetarako tresna da, eta normalizazioa, zerbait bada, pertsonak eta haien artekoetan eragin-lana da. Pertsonengana zelan ailegatu, zelan zabaltu gure mezua, zelan konbentzitu, zelan erakarri... Jarrera, eza-gutza, pentsaera eta sentimenduarekin ari gara lanean neurri handi batean, gogoan bizi diren horiekin, eta haiexek izan genituen jorragai Miramonen.

Dena dela, hizkuntzaz ari gara azken batean, eta hizkuntza norberaren arteko horiek besteekin partekatzen tresna da, zabaltzeko eta eragitekoa. Eta hizkuntza bat - euskara- tresna bizia izatea nahi bada, erronka bikoitza dugu aurretik: hizkuntzari berari balio eta indar komunikatiboa ematea, eta normalizazioarekin lortu nahi duguna esatea, ulertaraztea eta egitea. Txanponaren aurpegi bietarakoak izan genituen han.

Euskararen indar eta balio komunikatiboaz Fermin Etxegoienek ipini zigun gogoeta mahai gainean. *Estetika* aldarrikatzen du. Ez artelaren estetika baina, euskara hizkuntza sakratua, mitiko edo, besterik gabe,



lege-betekizun izatetik harago, euskararen erabilerari esanahia emango dioten erreferentzien beharra da aldarria. Euskara normaltasunez erabiltzeko uneak, guneak eta kanalak, sinbolismo hutsetik harago. Eta hor dugu seguruenik euskara elkarteek eginkizunetako bat: erreferentzia positiboak, guneak eta, azken batean, harreman-sareak sortzea eta finkatzea. Galdera interesgarria izan daiteke euskaltzaleontzat: gure ingu-



ruan, hiztun kopuruak gorabehera, euskaraz esaten denak norainoko indarra eta esanahia dauka?

Zer egin dugu aurretik, dudarik ez, arlo askotan. Eraldaketa sozial bat nahi dugu eta eraldaketa hori pertsonengan eragitetik hasten da.

Terminologia ez zaigu gustatuko, badakit, baina zerbait "saldu" beharra daukagu: ideiak, jarrerak, portaerak, ohiturak. Honetaz Paula Kasares eta Sergio Mongek eman zizkiguten pistak hain zuzen ere. Bi ideiarekin geratuko naiz:

1. Pertsoneri erreparatu behar zaie. Aurrean nor daukagun jakin behar dugu, gure mezua nori bidaltzen diogun eta hari zernola eskatu ahal diogun pentsatu behar dugu: bizimodua, erreferentziak, pentsaera... Eragingo badugu xede-taldea izan behar dugu gogotan, ez balizko hartzaile zehaztugabea edo ideala..

2. Klitxe eta lelo topiko asko darabiltzagu, ohituraz eta askotan zalantzan jarri barik. Komunikazioa konplexua da, baina aldi berean, pertsona horiek ondo-ondoan izaten ditugu gehienetan, eta hortxe izan dezakegu haiengana ailegatzeko giltzarria, diskurtso eta slogan handietan barik. Ondoko horren lekuan jarri eta pentsatu: Zer nahi du? Zer espero du? Zelan konbentzitu? Zer egin ahal du?

Komunikazioa deritzon honi dagokionez beraz, jorrazeko ildo bi euskara elkarteek zein euskalgintzarentzat: euskarari zelan eman balioa eta esanahia, eta gure mezua hartzailera izango dena identifikatzea eta hari begira jokatzea.

Benito Fiz
(Asapala Euskara Elkarteak kidea)

OINAK, BUZTINEZKOAK ORAINDIKI!

Ibiltzeko zango fin-finez jaio zela esango nuke lehenik, baina zango haien gainean zama dezenterekin etorri zela mundura; ez baitziren izan bi edo hiru; asko eta asko izan ziren hasiera hartan Euskal Herri oso-tik Euskara Elkartearen TOPAGUNEA sortzeko elkartu ziren euskara elkarte eta herri komunikabideak. Zango fin-finak zituen hasierako TOPAGUNE hark, ibili ahala klaska!, zartatu edo hautsiko zirela ziruditenak, goiko zama garraiatzea ez baitzen nolana-hiko eginkizuna: zango haien gaineko enborra buru askok osatzen baitzuten, gehiegixok denak bat etortzeko, zenbat buru hainbat abururen esaera zaharrari men egin nahian bezala. Geroztik hamar urte igaro dira, eta orduko jaioberria dezente hazi da, agian enborrez ez hainbeste, baina bai, ordea, zango-adarrez. Zorionak, bada!

Zangosagar mardul eta beteak ditu orain TOPAGUNEAk, hamar urtez egindako ibilbide oparoak gihartu dizkionak, ez baitira gutxi urte horietan TOPAGUNEAk martxan jarri dituen egitasmo eta jarduerak: denen begi bistan daude, eta federazioa tokiko euskalgintzaren benetan suspertu beharreko euskalgintzaren erreferentzia nagusia da une honetan Euskal Herrian.

Balorazioak egiteko garaian, ordea, betikoan gaude: batzuek botila erdi hutsik ikusiko dute, TOPAGUNEA behar genuenaren mailara iritsi ez delakoan; besteek, berriz, erdi betea, hasiera apal hartatik aurreratu denari nahikoa baino gehiago iritzi-ta. Nik neronek, botila erdia betetze-ar ikusten dut, egia baita hastapen guztien hasierako urrats zail asko egin dela, ahalmen handiko egitarauak gorpuztu direla, baina egia da, baita ere, TOPAGUNEAren benetako neurria eman beharko lukeen irismena eta presentzia ez dituela erdietsi oraindik federazioak, eta asko dela alderdi horretan eginkizun

duguna.

Euskara elkarteek eta federazioaren egiturak euren artean lotura estuagoa behar lukete bere jardunean, harreman jarraiago eta trinkoagoa, eta elkarren artean kudeatu beharreko gero eta egitarau zabala-goa. Oraindik orain urrun gaude elkarrengandik federazioa eta euskara elkarteak, iruditzen baitzait elkar-



teek ez dutela federazioa euren gainetik somatzen, ez dutela beregain hartu badela tokiko euskalgintzaren interesak bat berean babesteko eta defenditzeko elkarrekiko egitura bat. Zangosagarrak mardul bai, baina oinak oraindik buztinezkoak dauzkala TOPAGUNEAk, alegia.

Nire aburuz, honako ildo hauek landu beharko genituzke, TOPAGUNEA sortzez duen eginkizuna behar bezala betetzera helduko bada:

- TOPAGUNEAren indartu beharko genuke elkarte guztien ordezkari-tza sektoreko interesen defentsan, berariaz landuz elkarrekiko ditugun interesen kudeaketa. Esan beharrik ez da sinergia horren kudeaketak, gure herri honetan, tentsio eta gora-behera franko sor dezakeela, baina aurrera egingo badugu hala beharko du izan.

- Bere barne egitura bi norantzatan indartu beharko luke TOPAGUNEAk: goitik behera lurralde eta eskualde mailan barne egitura eragile bat sortu -egun dugunaz bestelakoa-, lan-egitarauaren kudeaketa zaindu eta

bizkortuko duena, elkartearen arteko harremana sendotu eta iraunkortuko duena. Behetik gora, federazioko zuzendaritza organoekiko harremana ordezkari iraunkor jakin batez fin-katu beharko luke elkarte bakoitzak eta harreman bide hori sustatu. Goitik behera eta behetik gora elkar-ri eraginez eta zirikatzuz jardun behar du TOPAGUNEAk, elkarte bakoitzari nortasun erantsia eskainiz. Hitz batean esateko, elkarteek eta federazioko egiturak elkarri askoz gehiago eskaini eta eman behar diote.

- TOPAGUNEAk elkartearen artean osatu beharreko egitura-sarean txertatu beharko luke, homogeneouski, bere jardun estrategikoa, jarduera edo ekimenak *eskaintzetik* areago, ahalbiderik ez dagoen herri eta eskualdetan berariaz ahaleginduz haiek antolatzen.

- Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Foru Aldundiekin bosturterako berariazko lankidetzak hitzarmena erdietsi beharko luke, federazio mailako lan-egitaraua finantzatu eta sektorea ordezkatzeko.

- Barne egitura hori indartu eta bere jardunean sendotu ahala, gure gizartearen aurrean dagoen protagonismoa irabazi behar du TOPAGUNEAk, euskararen erabile-ra, zabalkunde eta normalizazioari dagozkion gaietan gure plazan oso agerikoak egin behar dira bere iritzi eta jarrerak.

TOPAGUNEA bihurtu behar du euskalgintzaren eragile nagusi, nano-euskalgintzaren zutoina, baina horretarako buztinezkoak baino oin sendo-agoak behar dira; ez horratik berunezkoak, bai aleazio moderno sendoren batez gorpuztutakoak!

Jon Unanue
(Manuel Larramendi
Kultur Bazkuneko kidea)

(BIZI)ESPERIENTZIA ABERATSA

Topaguneak 10 urte bete eta euskara elkarte mugimenduak 25 urte bete ditu 2007an.

Atzera begiratzerakoan, euskara elkarte mugimendua irudikatu, antolatu eta abiarazteko intuizioa, bisioa, jakintza eta ausardia izan zuten gizon-emakumeekiko miresmena datorkigu gogora, 25 urte beranduago guztiz presente ditugun erronkak aurreikusteko gai izan zirelako.

- Euskararen normalkuntza ingurune hurbilenetik hasten zela aurreikusi zuten.
- Hizkuntzaren berreskurapenaren protagonista nagusiak euskaldunak izan behar garela asmatu zuten. Horretarako gune erreferentzialak sortzeari berebiziko garrantzia eman zitzaion.
- Euskaldunontzako bilguneak sortzeko tresna egokiak aurreikusi zituzten; ideologia, pentsaera, adin eta bestelako bereizgarrien gainetik euskaldunon bilgune izango ziren elkarteak.
- Hizkuntzaren erabilerari ere zentraltasuna ematen asmatu zuten, erabileraren garrantziaren kontzientzia existitu ere egiten ez zen garaian.
- Erreferentzia izango zen gizarte mugimendua nahi bazen, autonomia izan behar zuela ikusi zuten.
- Gizarte mugimendua euskararen normalizazioaren gurditik tiraka jarri zuten eta atzetik ekarri zituzten Administrazioa eta enpresak. Helburua bazuten, martxan jartzeko oinarri teorikoa ere bai eta tresna ego-kia sortzen jakin zuten.

Ondoren sortu zen Topagunea. Oso modu xumean hasi zen erakundea eten-

gabe hazten joan da hamar urteotan eta lan handia izan da elkarte bazkide guztiak bildu, harremanetan jarri, proiektuak bideratu, azpiegitura sendotu eta lan talde finkoa osatzea. Hamar urteren buruan lan hori egintzat, edo bideratutzat behintzat, jotzen dugu. Urte hauetan lan egin dugu, baina eragin ere eragin dugu, eta euskararentzako esparruak irabazten joan garen heinean, euskara elkarteak sendotu egin dira, euskara elkarte funtzioa gizarteratu da eta euskara karga ekonomiko eta soziala baino aberastasun iturri dela erakutsi dugu.

Egin eta eragiteaz gain, ikasi ere gauza asko ikasi dugu, eta lehen oharkabean hanka egiten ziguten hamaika xehetasun ulertzeko modua izan dugu.

- Euskara elkarteek badugula lanerako estilo propioa, jarrera eraikitzailea dugula oinarri.
- Aniztasunak aberastu duela euskara elkarte mugimendua, pertsona, ideia, errealitate eta bizipen aniztasunak.
- Euskal hiztun desberdinak daudela: tartean daude, euskaraz bizi nahi eta hala egin dezaketen neurrian euskaraz bizi direnak eta baita euskaraz jakin arren eta inguruak lagunduta ere, erdaraz bizi direnak, besteak beste.
- Euskaraz zein erdararen batean aritzeko motibazio desberdinak daudela: lan kontuengatik derrigortuta, ingurunea euskalduna edo erdalduna delako, hizkuntza batean bestean baino hobeto moldatzeagatik, unean-unean egoerak bat edo beste eskatzen duelako... Motibazio horiei erantzuteko sortu ziren aisialdiko eskaintza, tokiko hedabide-

ak, mintzapraktika egitasmoak eta beste.

- Desadostasun ideologiko-politiko eta desberdintasun ekonomikoez haratago euskarak eta euskaraz bizi nahi izateak komunitate berean biltzen gaituela. Muga politikoez ezin diotela mugarik jarri hizkuntza komunitateari, eta oraindik egon badagoela euskaldunon artean lotura ikusezin bat, talde bereko sentitzeko zer bat.

- Euskarak esanahi desberdina izan dezakeela: eskubidea edo konpromisoa, lanerako titulua edo munduan egoteko modua, bizipenen iturri, identitatea zati edo komunitate sortzaile.

Gure kasuan euskara eskubidea dela irizten diogu, eta baita konpromisoa eta militantzia, baina batez ere, identitatea eta izaera ematen digun zerbait dela esan nahi dugu, lanerako, bizitzeko, gozatzeko eta izateko dugun modua.

Horretan asmatu nahi genuke aurrerantzean, jendea euskaldun bizi garenongana erakartzen, euskara aberastasun eta gozamen iturri izan daitekeela adierazten, gure identitatea konplexurik gabe aldarrikatzen, euskarak lotzen duen hizkuntz eta kultur komunitatea trinkotzen, eta batez ere, gure ondoan, inguru berean bizi diren beste hizkuntza komunitateetako kideei, berea utzi gabe, euskaraz bizitzen eta sortzen has daitezen motiboak ematen.

**Karmen Irizar eta
Iker Martinez de Lagos
Topaguneko Zuzendaritza
Batzordeko kideak**



943 783 309

Zubillaga Industrialdea, 9
20560 OÑATI